

ZER EGIN ETXEKO
TRATU TXARREN ETA
SEXU-ERASOEN AURREAN?

IZENBURUA: "Zer egin etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean?"
EGILEA: Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundea.
Manuel Iradier, 36. 01005 Gasteiz.
MAKETATAZIOA ETA KOORDINAZIOA: Ana Rincón
ILUSTRAZIOA: Beatriz Arraibi
DATA: Urria, 2003
ALE-ZENBAKIA: 15.000
DESKRIBATZAILEAK: Tratu txarrak, sexu erasoak, gidak
INPRIMAKETA: Gráficas Santamaría. Bekolarra, 4. 01010 Gasteiz
ISBN: 84-87595-91-X
LEGE GORDAILUA: VI-424/03

salneurria: 5 euro

AURKEZPENA


Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundeak bultzatuta eta arlo horretan diharduten erakunde publikoen partaidetzarekin, 2001eko urriaren 18an sinatu zen *Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko erakunde arteko hitzarmena*. Hitzarmen honen xede da biktimei laguntza eta babesa ematen ari diren erakunde publikoen arteko koordinazioa hobetzea eta Erkidego osoan jardun ildo homogeneoak ezartzea, biktimei laguntza hobea ematearren eta erasotzailea agintzaritza judizialaren esku jartzea bideratzearen.

Aipatu Hitzarmenaren Segimendu Batzordeak 2002ko azaroaren 22an onartu zuen *Etxean tratu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako segurtasun-plana (2002-2004)*. Planak 17 neurri barne hartzen ditu guztira, esku hartzeko 4 esparrutan banatuta: biktimei informazioa ematea, polizia-babesa, prozesu judizialean babestea eta gizarte-babesa.

Hain justu, agiri hau aipatu Planaren 1.1. neurria betetze aldera egin da; honek zera aurreikusten du: "hainbat material prestatzea, euskarri desberdinetan. Horiek etxean tratu txarrak jasan ditzaketen pertsonak izango dituzte helburu, kasu horietan zer egin eta norengana jo behar duten jakinarazteko, baita segurtasun neurrien berri emateko ere". Izan ere, hau uste dugu: "biktimak seguruago eta babestuago sentitzen dira babesten dituzten eskubideak eta eskura dituzten laguntza-baliabideak ezagutzen dituzten neurrian".

Foileto hau aipatu Segimendu Batzordearen esparruan egin da. Batzorde hau, Erakunde honez gain, ondorengo hauek osatzen dute: Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusia, Fiskaltza, Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza, Herrizaingo, Osasun, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako, eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailak, hiru Foru Aldundiak, Eudel/Euskal Udalen Elkarte, Legekarien Euskal Kontseilua eta Euskal Sendagileen Elkarte Nagusia.

Amaitzeko, nire eskerrik beroena eman nahi diet agiri honen elaborazioan, modu batera edo bestera, parte hartu izan duten erakunde eta profesional guztiei.

A handwritten signature in black ink that reads "Txaro Arteaga". The signature is enclosed in a large, loopy oval shape, with a long, wavy line extending downwards from the bottom of the oval.

TXARO ARTEAGA ANSA
EMAKUNDE / Emakumearen
Euskal Erakundeko zuzendaria

ZER DIRA ETXEKO TRATU TXARRAK?

Baldin eta familiakoren batek edo zurekin bizi ohi den edo bizi izan den pertsonak...

- mehatxatzen;
- iraintzen;
- etxean gertatzen diren gauza txar guztien errua egotzen;
- makurrarazten;
- jendaurrean nabarmen uzten;
- zure itxura eta/edo egoera fisikoa gutxiesten edo mespretxatzen;
- lagunekin edo familiakoekin harremanak izatea eragozten;
- zure gutunak eta telefono-deiak kontrolatzen;
- zuk dirua eskuratzea eragozten eta zure gastuen kontuak ematera behartzen;
- zuretzat balio sentimental berezia duten gauzak txikitzen;
- bultzatzen;
- jotzen;
- sexu-harremanak izatera behartzen bazaitu;

....



...tratu txarrak jasaten ari zara.

Zuri pasatzen ari zaizuna emakume askori gertatzen zaie gure herrian eta mundu osoan, beren adina, egoera soziala eta ekonomikoa, kultura edo nazionalitatea alde batera utzita, eta zein bizitegi-eremutan bizi diren alde batera utzita: senar-emazteen etxean, gurasoen etxean, egoitza batean (tutoretza edo erakunde pean). Gainera, jakin behar duzu, **ezintasunen bat baduzu**, egoera horrek ahulago bihurtzen zaituela lagun, familiakoren edo zaintzaileraren batek eman dakizkizukeen tratu txarren aurrean.


Tratu txarrak giza eskubideen urratze larria dira. Inork ez du eskubiderik zuri tratu txarra emateko, eta **ez dago horretarako arrazoirik**. Tratu txarren errudun bakarra tratu horiek ematen dituen da; zuk ez duzu errurik.

Tratu txarrak prozesu ziklikoa dira: tentsio-pilaketako fase batekin hasten dira (eraso hitzezkoak eta psikikoak); ondoren, indarkeria fisikoaren leherketa-fase bat etortzen da (kolpeak, kontrola galtzea), eta erasotzailearen damutze faltsuko fasearekin amaitzen dira ("ez da berriro gertatuko",

"dena aldatuko da"...). Ziklo hori behin eta berriro errepikatzen da, eta **gero eta bortitzagoa eta denboran laburragoa da**. Ez dago zeure esku beraren portaera aldatzea; askotan damututa dagoela edo maite zaituela erakutsi arren eta zuk askotan barkatu arren, bera ez da aldatuko.

Zuk bai pauso batzuk egin ditzakezu egoera hori amaitzeko. Jarraitu gida honetako aholkuei. Ez da bide erraza, baina merezi du. Gainera, zure eskueran dituzu profesional batzuk, zuri laguntzeko.

Eta gogoratu, tratu txarra ematen badizu, ez zaitu maite.



ZER EGIN TRATU TXARRAK GERTATZEN DIRENEAN?

1. Berehalako eraso baten aurrean, ahal baduzu, deitu poliziarri babes zaitzan (Ertzaintza: 112; Udaltzaingoa: 092).

Ahozko komunikaziorako arazoak dituzten pertsonak (SOS-Deiak-faxa): Araba (945 136 873) Bizkaia (944 425 206) eta Gipuzkoa (943 447 904)


2. Erasoa gertatu bada, kontu iezaiozu konfiantzako pertsona bati eta eskatu laguntza.

3. Lesio fisikorik edo psikikorik baduzu, edo izan dezakezula uste baduzu, joan zaitez osasun-etxe batera. Azal ezazu lesioen jatorria eta eska ezazu **txosten medikoaren kopia**.

4. Osasun-laguntza eskatzen duen lesiorik ez baduzu, joan zaitez zure udalerriko gizarte-zerbitzuetara, eta han hau emango dizute:

- **Laguntza**, zure egoerari irtenbideren bat aurkitzeko eta **aholkularitza**, zure eskubideei eta balizko izapide judizial eta polizialei buruz (non eta nola salatu, babeseko neurriak eskatu, bantzea hasi...).





- Informazioa eta, behar izanez gero, doako sarrera honetara: aldi baterako ostatua, laguntza psikologikoa, aholkularitza juridikoa, laguntza ekonomika, biktimei laguntzeko zerbitzuak, doako justizia, biktimei laguntzeko elkarrekin harremanak...
- Lan-orduz kanpo babes-etxe bat behar baduzu, deitu 24 orduko larrialdi gizarte zerbitzuetara Araban (945 134 444 eta 112), Bizkaian (944 701 459 eta 112) eta Gipuzkoan (112).


5. Babesa behar baduzu, eska dezakezu babesteko agindua polizian, epaitegian, fiskaltzan, Biktimak Laguntzeko Zerbitzuan, gizarte zerbitzuetan edo bestelako laguntza zerbitzuetan.

- Eskabide-orria emango dizute eta, bete ondoren, epaitegira berehala bidaliko dute. Epaileak deklaratzera deituko dizu eta, hala bada, gorkio, zure babeserako neurriak hartuko ditu: penalak (behin-behineko atxiloketa, erasotzailea urrundu...), zibilak (erasotzaileak etxebizitza erabiltzea galarazi, seme-alabekiko eskubideak mugatu...) eta gizarte zerbitzuei zu laguntzeko agindua emango die (juridikoa, psikologikoa, ekonomikoa, ostatua...).
- Oso garrantzitsua da behar bezalako aholkularitza izatea eskabide-orria betetzerakoan eta epaitegian. Horretarako, deitu edo bidali mezu labur bat laguntza juridikoko 24 orduko doako zerbitzura (Araba: 652 779 045; Bizkaia: 652 779 044; Gipuzkoa: 652 779 043). Konta ezazu xehetasun osoz, kontu batzuk lotsa ematen dizuten arren, gertatu zen guztia (balizko lekukoak, alde aurretik jasandako erasoak, etab.) eta eraman ezazu zeurekin lesioen txosten medikoa.

6. Ikusmeneko, entzumeneko edo mugikortasuneko arazoren bat edo beste ezintasunen bat baduzu, jakinarazi arazo hori (telefonoz, faxez, e-mailez, mezu laburrez...) joan nahi duzun zerbitzuari, joan-etorrian lagun diezazuten, zurekin joan daitezen, zeinu-mintzairako interprete bat jarri diezazuten, etab.

Entzumen-arazoak badituzu, zure eskueran duzu **zeinu-mintzairako interpreteen doako zerbitzua**; gaur egun, Euskal Gorra/ Euskadiko Gorren Elkarteen Federakuntzak (Araba: tel. eta fax: 945 286 948, e-mail: arabakogorrek@telefonica.net; Bizkaia: tel. 944 793 072, fax: 944 164 723, e-mail: bilbokogorrek@terra.es; Gipuzkoa: tel. 943 468 453, fax: 943 473 672, e-mail: asgtsocial@telefonica.net). Gainera, estatu-mailako **emakume gorrentzako doako DTS telefonoa** ere erabiltzeko aukera duzu eguneko 24 orduetan (900 152 152).

7. Atzerritarra bazara, eta paperak behar bezala dituzun edo ez alde batera utzita, **jarraitu gida honetako pausoei**. Osasun-laguntzara, laguntza juridikora eta larrialdi-zerbitzuetara doan iristeko eskubidea duzu. Gainerako laguntzera iristeko, **eskatu erroldatzea** udaletxean.



ZURE SEGURTASUNERAKO AHOLKUAK

A) ERASOA GERTATZEN DENEAN


- Irteterik baduzu, deitu poliziari (Ertzaintza: 112 edo Udaltzaingoa: 092) edo zoaz hurbileneko komisariara eta eskatu laguntza.
- Adostu zure auzokoekin, lagunekin edo hurbileko familiakoekin seinaleren bat, laguntza behar duzuen poliziari dei diezaioten.
- Erasoa saihestezina bada, saiatu jomuga txiki batean bihurtzen. Babestu aurpegia eta burua besoez.
- Ireki ateak eta leihoak, eta atera ahalik eta zaratarik handiena. Laguntza eskatu.
- Erakutsi zeure seme-alabei laguntza bilatzen eta beren buruak babesten, indarkeriazko pasarte bat hasten denean.
- Idatzita gorde bizi izan dituzun indarkeriazko egoerak: datak, xehetasunak, lekukoak, lagundu zizuten polizien eta medikuen identifikazio-zenbakia edo datuak.
- Gorde indarkeriaren froga guztiak: arropa hautsiak edo odoleztatuak, gauza txikituak, armak, etab. Ahal baduzu, hartu lesioen argazkiak.
- Behin erasoa pasatuz gero, jarraitu "Zer egin dezakezu" atalean aipatutako pausoei.



- Zu edo zure seme-alabak tratu txarren biktimak bazarete, **etxea uzteko eskubidea duzue**, eta ez da familia-abandonatzetat hartuko. Dena dela, komenigarria da, zure etxea uzten duzuetik 30 egun pasa aurretik, epaitegian **banantze-demanda edo behin-behineko neurriak** aurkeztea.

B) IHES EGITEA ERABAKITZEN DUZUNEAN

- Epaitegian erasotzailearen urruntzea eska dezakezu. Hala ere, etxetik joatea erabaki baduzu, **informa zaituz aurretik** gizarte-zerbitzuetan, eta eskatu konfiantzako norbaiti ihesean laguntzeko.
- Ihes egiteko, **egoera lasai dagoen** une bat aukeratu. Saiatu erasotzailea ez dadila etxean egon, eta, etxean badago, etxea uzteko arrazoi sinesgarriak erabili, eta ez eragin susmorik.
- **Ez eman** erasotzailea erne jarri dezakeen **argibiderik** edo aztarnarik.
- **Ez hartu lasaigarririk**, zure medikuak hartzeko agindu dizkizunak izan ezik; erne eta argi egon behar duzu, pentsatzeko eta erabakitzeko.



- **Saiatu aldean eramaten** ahal duzun diru guztia eta honako gauza hauek:

NAN, familia-liburua, lan-baimena eta pasaportea (atzerritarra bazara), Gizarte-Segurantzako kartilla edo osasun-txartela, bankuko dokumentuak eta kreditu-txartelak, ziurtagiri medikoak eta ohiko sendagaiak, errentamendu-kontratua edo jabetzeko eskriturak, zure eta zure seme-alaben ikasketa-espeditenteak, giltzak, telefono erabilgarrien agenda, bai eta balizko prozedura judicial baterako do-



kumentazio erabilgarria ere: nominak, alokatze-gastuen ordainagiriak, telefonoa, aseguruak, supermerkatua, eskolatzea, erasotik eratorritako gastuen egiaztagiriak, hala nola joan-etorriak, kontsulta medikoak, sendagaiak erostea, etab.

- Gauza horiek jasotzeko **astirik izan ez baduzu** eta bakarrik itzultzeko beldur bazara, eskatu poliziarri zurekin joateko.

C) BANANTZEA GERTATZEN DENEAN

- Judizialki debekatzen bada erasotzailea familiaren bizilekuan bititza edo hara hurbiltzea, **aldatu sarraila** berehala. Eskatu zure telefono-konpainiari, ahal baduzu idatziz, **telefono-zenbakia aldatzea** eta zure erreferentzien konfidentzialtasuna.
- Zure egoeraren berri eman zure inguruko ahalik eta pertsona-kopuru handienari (familia, lagunak, lankideak,...). Eman argibideak, erasoren bat gertatzen bada, poliziarri dei diezaioeten. Eskatu lantokian deiak iragazteko. Zure enpresan mugikortasunik baduzu, eskatu destino-aldaketa konfidentzial bat. **Ez izan lotsarik, ingurukoak zure babesean inplikatzeko.**
- Ez onartu inoiz zure erasotzailearekin bakarrik hitz egitea. Saiatu erasotzaileak ezagutzen dituen ohitura batzuk aldatzen (erosketak egiteko ordua, parkera joateko ordua, etab.) eta **saiatu bakarrik ez egoten** ahalik eta denbora gehienez.
- Erasotzaileak jazartzen zaituenean (mehatxuak, irainak, hertsas-



tzeak...), deitu polizari (112). Jazarpena telefonoz bada, eseki. Jakinarazi iezaiozu zure abokatuari, epaitegian eskatzeko zure telefonoa kontrola dezaten.

- **Epaitegian**, eskatu erasotzailea urruntzea, poliziaren babesa, elikatzeko pentsioa, erasotzaileak seme-alabekiko dituen eskubideak muga daitezela eta Lekukoak Babesteko Legea aplika dakizula. Ez izan beldurrik termino juridikoek zer esan nahi duten galdetzeko, ulertzen ez badituzu. Eskatu **biktimei laguntzeko zerbitzuekin** harremanetan jartzeko.
- **Erasotzailearen urruntzea judizialki erabaki bada**, eraman beti aldean urruntze hori erabakitzen den autoaren kopia, polizari erakutsi ahal diezaiozun, beharrezkoa balitz.
- **Eskolan**, azaldu egoera zuzendaritzari, zure seme-alaben bila zu edo zuk baimentzen duzun pertsona bakarrik joan ahal daitezen. Ahal izanez gero, idatziz azaldu.
- **Seme-alaba txikirik baduzu**, aginduak eman, ez dezaten atea ireki, eta, erasotzailea agertzen bada edo deitzen badu, ez dezaten telefonoz daturik eman. Ziurtatu ondo dakizkitela ostatu hartuta zauden lekua- ren izen osoa, helbidea eta telefonoa. Egin iezaiezu datu horiek dituen txartel bat; gainera, erantsi poliziaren, abokatuaren eta beste pertso- naren baten telefonoa (arazoren bat dutenean, harengana jo dezaten).
- **Ez utzi erasotzailea ostatu hartuta zauden etxean sar dadin**. Epaitegiak hala erabaki badu, bere seme-alabak ikusi ahal izango ditu, baina ziurtatu entrega eta jasotzea etxetik kanpo egiten direla, eta saiatu zure konfiantzako pertsona batek egin dezan; ez egin zerorrek. Gure erkidegoan **familien elkargune** batzuk daude eta pertsonal es- pezializatua dute, epaitegiak ezarritako bisita-erregimena betetzen la- guntzeko; horrela gutxieneko segurtasun-berme batzuekin egiten dira. Eskatu horiei buruzko informazioa zure udaleko edo aldundiko gizarte-zerbitzuetan.

ZER DIRA SEXU-ERASOAK?


Pertsona baten borondatearen aurka ezarritako sexu-portaerak: exhibizionismoa, hitz lizunak, zirriak, laztanak, sexu-jazarpena lantokian, bortxaketa, etab. Askotan, sexu-erasoak pertsona ezagunengandik etortzen dira.

Gogorik ez baduzu, esan ezetz. Ez duzu zertan jasan zeure borondatearen aurkako sexu-jokaerarik. Ez zaitetz sentitu errudun ezetz esateagatik, ez eta, hala eta guztiz ere, sexu-harreman bat izatera behartzen bazaituzte.

Sexu-erasoek, kalte fisikoez gain, ondorio psikologiko larriak eragin ohi dituzte (herstura, amesgaiztoak, depresioa, sexu-grina gutxitzea,...). Ondorio horiek asko luzatzen dira erasoaren ondoren, eta, normalean, gainditu ahal izateko, laguntza psikologiko espezializatua eskatzen dute. Laguntza hori, nahi izanez gero, doan eskura dezakezu, zure udalerriko gizarte-zerbitzuen bidez.



ZER EGIN SEXU-ERASO GERTATU BERRIAK IZATEN DIRENEAN?



1. Berehalako eraso baten aurrean, ahal baduzu, deitu poliziarri babes zaitzan (Ertzaintza: 112; Udaltzaingoa: 092).


Ahozko komunikaziorako arazoak dituzten pertsonak (SOS-Deiak-faxa): Araba (945 136 873) Bizkaia (944 425 206) eta Gipuzkoa (943 447 904)

2. Ez garbitu gorputza eta ez aldatu arropa. Aho bidezko eraso bat jasan baduzu, saiatu ez jaten eta edaten; izan ere, bestela, erasotzailea identifikatzeko eta kondenatzeko funtsezko frogak ezaba baititzakezu.

3. Kontaiezazu konfiantzako pertsona bati eta eskatu laguntza.

4. Joan zaitez ospitalera, hurbilenduzunera. Atzerritarra bazara eta oraindik osasun-txartelik ez baduzu, berdin hartuko zaituzte. Koordina-zio-protokolo bat dago gure erkidegoko erakundeen artean, eta ospitalea bera arduratuko da epaitegiari abisatzeaz.

5. Nahiago baduzu ezer baino lehen poliziarra (Ertzaintza: 112 edo Udaltzaingoa: 092) edo guardiako epaitegira joan edo deitu, dagoki-



zun ospitalera edo zerbitzu klinikora lagunduko dizute. Salaketa jarri aurretik, deitu edo bidali mezu bat laguntza juridikoko 24 orduko doako zerbitzura (Araba: 652 779 045; Bizkaia: 652 779 044; Gipuzkoa: 652 779 043).

6. Ikusmeneko, entzumeneko edo mugikortasuneko arazoren bat edo beste ezintasunen bat baduzu, jakinarazi arazo hori (telefonoz, faxez, e-mailez, mezu laburrez...) joan nahi duzun zerbitzuari, joan-etorrian lagun diezazuten, zurekin etor daitezen, zeinuen hizkuntzako interprete bat jarri diezazuten, etab.

